

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2000ko abuztua - 32. zenbakia

Doniene Sua argazkitan


**Jose María
González-Pintogaz
berbetan**

ITXAS-ALDE Niemes-en

ALKARRIZKETE



Ramón BARREIRO BENGOA



BOLIBAR

Jatetxea

Benta Alde, 180
Tfnoak.: 94 619 4141
94 619 30 00
48130 BAKIO



EROSLE

Etorkizuna!

Bakio bidea, 50
Tfnoa.: 94 619 49 00
48130 BAKIO

ASKADA

KAFETEGIA

Benta Alde, 70
Tfnoa.: 94 619 4006
48130 BAKIO

H

ARIMUNE

OSTATUA

Benta Alde, 95
Tfnoa.: 94 619 4022
48130 BAKIO



GAZTELU-BEGI

JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86
Tfnoa.: 94 619 4924
48130 BAKIO

Argitaratzailea: Bakioko Euskera Zerbitzua, Bakioko Kultur Etxea, Urkizaurralde 28, 48130 Bakio, tel: 94 61 94 001 edo 94 61 93 369, faxa: 94 61 93 118. **Erredakzinoa:** Joseba Terreros, Gorane Oleaga, Unai Beitia eta Iniaki Martiartu. **Laguntzaileak:** Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia, Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebarria, Ainara Madariaga, Egoitz Garai, Maria Santisteban, Etor Duoandikoetxea, Iratze Ormaza eta Jon Aingeru Goikoetxea. **Argazkilariak:** Jorge Busturia, Kike Martínez, Aitor Ibarrondo, Itxaso Urazurrutia eta Iniaki Martiartu. **Koordinazinoa eta hizkuntza ardurea:** Joseba Terreros eta Iniaki Martiartu. **Irarkolea:** Gráficas Gaubeña, Gernika-Lumo. **Ale kopurua:** 1.000. TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitakoen esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.

T XIRRITXOLA 3 2

BAKIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

Hiruhilabetekaria - 2000ko abuztua

ZER-NON

Agurra	3
Berbetan: Ramón Barreiro Bengoagaz	4
Eritxia	6
Zer deritxozu	7
Zer barri?	9
Argazkitan: Doniene Sua	18
Gure Artean: Teodoro Zumarraga	20
Zuhur ibili	21
Argazkitan: Doniene Eguna	22
Gai berezia: Eneperi	24
Argazkitan: San Pelaio Eguna	26
Zaharrak barri	27
Gai berezia: DAB, audio barria	28
Baserria: Olabarri	29
Berbetan: J.M. González-Pintogaz	30
Argazkitan: ITXAS-ALDE Niemes-en	32
Barri laburrak	34
Bitxikeriak	35
Euskerea: Bakioko euskerea-10	36
Herriko Taldeen txokoa	38
Kultura leihoa	39
Danetarikoak	41
Atzera begira	44

BERBAURREA

Herrira arinago helduteko bide nagusiak zabaldu egiten deuskuez. Industrialdeetatik asago ez gaitez an egon. Uri nagusira joan-etorri laburra egin daigun. Herria toki horreetatik eskurago egon daiten. Eskurago egote horrek, baina, honantzako jende olatua ekarriko deusku. Herria handiagotu egingo da, erbestetarrak hona biziten etorrita. Hori ei da gure etorkizuna!

Bakion etxebizitza erostea bape-bape merke ez dana edonork daki. Gaurtik aurrera, oraindikarren gatxago. Ez dago bakiotarren artean aberats askorik, ez. Erbestean, ostera, bat baino askoz gehiago. Horreek izango dira bihar-eztiko bakiotar barriak. Eurrez etorri behar dabenak, aurki. Herria batetik handiagotu egingo da, bestetik hutsitu. Izan be, nortzuk izango dira, bada, gaurko herriko ume-gazteen artean berton biziten lotuteko gauza? Ez ete dago edozein herriren etorkizuna beraren ume-gazteetan? Bide nagusiak zabaldu egiten deuskuez, **Herria** hutsitu dakigun?

TXIRRITXOLA

AGURRA
abuztua 2000



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

TX-32

3

RAMON BARREIRO BENGOA EUSKAL AKUARELISTEA

Gure inguruakaz maiteminduta dagoan margolaria. Euskal Akuarelisten Alkarteko burua, bertoko bazkideakaz batera Euskal Herriko izena eta irudiak mundu guztian zabaldu dauz, oso era arrakastatsuan, zabaldu be. Aspalditik Bakioko lagun, sarritan, udalaren arte lehiaketetan epaile lanak bete izan dauz. Uda honetan, beraren akuarela gozoak ikusi ahal izango doguz Kultur Etxean.



BERBETAN
abuztua 2000

TX: Aitaren laguntzeagaz oso gazte hasi zintzazan margotzen. Orduko sasotik zer gogoratzen dozu?

RB: Itzelezko pozagaz hasi nintzan. Gure aitak marrazkien ganean asko ekian eta aholku

onak emoten eustazan. Ni basora joaten nintzan, apunteak hartu ...

TX: Zergaitik akuarelea eta ez beste teknikearen bat, esate baterako, batzuentzako balio handiagoa daukan oleoa?

RB: Bai, balio handiagoa emoten jako, baina ez dago horretarako arrazoirik. Gauza ezbardinak dira. Akuarelea galkorra dala esaten da, baina, ondo margotuta badago, pigmento onakaz, atzealdean euskarri egokia erabilia,

TX-32

4

hezotasunik hartzen ez daben kartoietan, orduan, ondo eutsiko deutso. Nik El Cairon, lau mila urteko akuarelak ikusita daukadaz.

TX: Baina zergaitik oleoa eta ez beste teknikearen bat?

RB: Ba, ez dakit. Hasikeran, errezago zala uste neban. Baina, gero eta gehiago ikasten danean, gatxagoa dana konturatu naz. Akuarelelea ezin leiteke zuzendu. Behin zeozer egin ezker, hor lotzen da. Ezin leiteke kendu. Txarto ibili ezker, orria apurtu eta barriro hasi beharko da. Oleogaz ez da hau jazoten.

TX: Beti margotzen dozu kanpoaldean?

RB: Bai. Naturea zoragarria da. Irakasle itzela. Erabili behar diran koloreak eta giroa emoten dauz. Gure inguruneke alde ona eta txarra da argiak oso arin aldatzen dirala, eta arineketan ibili behar izaten dau norberak momentua harrapatzeko.

TX: Ganera, zuri gure ingurunea sano gustatzen jatzu.

RB: Bai horixe! Hemen daukaguzan inguruak zoragarriak dira. Ezagutu izan dodaz hainbat bazter hemetik kanpo, baina ez dago gurearen antzekorik.

TX: Baina kanpoaldean, baso zabalean margotzea ez da izango erreza.

RB: Benetan ezerosoa da, pertsona asko adi lotzen dira eta ganera hotza, haizea... izaten dira.

TX: Noztik etorten zara Bakiora?

RB: 30 urte inguru izango dira Bakiora etorten nazana.

TX: Eta zein da margotzeko gehien gustatzen jatzun bazterra Bakion?

RB: Haretzea gustatzen jat. Hare bustia, olatuak... Baina jakina, horretarako egun aproposak izan behar dau. Eguraldi eguzkitsuak ez dau giro onik sortzen.



TX: Zure ustez, atara leike bizimodua gaur egun artistearen batek beraren lanari esker?

RB: Ez da erreza. Oso ondo margotu behar dau. Badagoz ondo bizi, fin margotu eta prezio onean saltzen daben batzuk.

TX: Erakusketak egiten dozu-zanean, zerk zorutzen zaitu?

RB: Erakusketak prestatzea asko kostatzen jat. Interesgarriak izatea

gura dot, atseginak, gozoak eta gaiak ez daitezkan antzekoak izan... Eta ganera, guztiek lotu-rearen bat euki daien gura dot. 40 edo 50 koadroko erakusketea osotzeko, margoki piloa egin behar da eta gero, aukeratu egin. Atzera eta aurrera ibiltzen naz holangoetan.

TX: Eta ikusleen eritxiak? Ulertzen dogu ezer?

RB: Gehienetan ez. Oso gitxik. Ikusleak anekdotearen bila dabilz: toki hau ezagutzen dabela, euren etxea hango ha dala,...

TX: Badaukazu ohitura edo mania berezirik?

RB: Ez. Dana dala, batzuetan, oso polita deritxodan zeozer margotu gura izaten dot, baina benetan gatxa dana be ikusten dot. Ez da kopiatu behar zehatz-mehatz ikusten dana, sentitu egin behar da. Eta gero, sentitu dana, norberarengan gel-ditu dana, kanpora atara. Benetan norberarena dan emoitzea.

TX: Zelan konpontzen zara besteek emondako zereginakaz, enkarguakaz?

RB: Ufff....!! Batzuetan egin behar izaten dodaz, baina ez naz horren aldekoa. Nik neure gustukoa dana margotu gura dot, eta ez besteek esandakoa. Ez deust balio eroslearen arabera margotzen dauan margolariak. Nik berari, margolariari, gustatzen jakona ikusi gura dot. Benetan sentitzen dauana, adierazo gura dauana, berarengandik sortu dana...

Gorane OLEAGA



ETBren LAPRASTADAK

Zelan erabili behar dira gure herri, mendi, erreka eta bestelango lekuen izenak? Antza danez, eta agozko emoitzeari jagokonez, hurrengo lerrootan azalduko dogun kasuetan, gixtienez, ETBk erabagia hartuta dauka. Ebatzi okerra, baina.

Ez dira izango aste bi, Bizkaiko itsasaldeari buruzko ETBren saio bat ikusten genduala, JATA mendiaren izena entzun genduan: espainerazko „j“ belare-gorra (*jamón*) erabili eta azentua lehenengo silaban iminita (*Játa*). Bada, euskeraz ez da holan esaten. Jakin beie ETBkook, Jata mendiko inguruko euskaldun guzti-guztien agoetan mendi horren izena esankeran „j“ sabaikari-ozena eta azentua bigarren silaban esaten doguna, hau da: JATA → [*yatá*]. ETBk erabilitako emoitzea [*xáta*] ez da euskerazkoa eta gure belarrietan arrotza da guztiz. Izan be, euskaldunak ez diranek zabaldutako agoskera okerra da. Mailegu batzuk kenduta, gure inguruko euskerearen „j“ hori sabaikari-ozena da jatorriz [y]. Beste horrenbeste, gure lurraldeko JATABE, SANJOANALDE, JAUREGI, JAUREGIZARRA,... toponimoak agoskatukeran.

Gure herriaren izena, BAKIO, be entzun genduan saio beratan, txarto agoskatuta, entzun be. Azentua lehenengo silaban iminita, erdaldunen erara. Azentua, baina, „io“ diptongoa apurtuteko edo, „i“ horretan erabilten dogu guk euskeraz, hau da: BAKIO → (*bakío*), Arratia (*arratía*) eta Donostia (*donostía*) lez.

Hizkuntza arloan eredu izan beharko leuken ETB, benetan eredu izan beite! Herri euskereari zor jakon begirunea ahaztu barik, baina.

Iniaki MARTIARTU

Goitibeheren jatsikerea dala eta



Udal zinegotziek eta hainbat kultur alkartetako ordezkariak osotutako Jai Batzordeak 1998. eta 1999. urte bietan goitibeheren jatsikerea antolatu eban, besteak beste. Aurten, batzorde honek txapelketa hori ez egiteko erabagi sendoa hartu dau ago

batez. Horretarako arrazoa honaxekoa izan da: lehiaketa mota honeetan izaten diran ezbehar larriak, esaterako, igaz Zeberion izandako partaide baten heriotzea. Holan, gaur egun oraindino be ez dira zehaztu proba hori antolatu eta zabaltzen lagundu eban erakundeen erantzukizunak. Hemen be antzeko zeozer jazo leitekelaokan eta Jai Batzordeak holango ardureari ezin jakola aurre egin kontuan hartuta, lehiaketa hori ez egitea ebatzi da. Gure jarrera ulertu eta jaiakaz ahalik eta gehien gozatuko dozulakoan, agur t'erdi. Gora San Joan Dolozak!

Jai Batzordea



Bakiotik Athletic-en alde

Urtean zehar Athletic-en hainbat partidu ikusi dodaz. Beren-beregi horretara hurreratzan izan naz Bilbora. Bertoko Athletic-zaletasuna ikusita, Bakio be jokalariek emon izan dauz-eta, sortuko ete dogu herrian Athletic-en aldeko “peña”ren bat? Hori bai, baldintza bakarra, jarduera osoa Mendebaldeko euskeran egitea.

JO PELOTIE

OHARRA:

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo leiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 2000ko urtariletik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeron, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale 1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500

ERITXIA
abuztua 2000

Eskerrik asko etorteagaitik!



KAFETEGIA

Sabin'en
Jatetxea

Benta Alde, 75
Bekabari
Tfnoa.: 94 619 40 59

Benta Alde, 72
Estibaliz
Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO

TX-32

6

ZER DERITXOZU?


Aspaldion agorik ago ibili da, lotu barik, telebisinoko «big brother» (anaia/neba handia) dalako programea. Onerako zein txarrerako eritxiak entzuten izan doguz non edo han. Gure gazteen artean zelango onarpena daukan jakinguran, eurakaine jo dogu eta hurrengo itaun hau egin deutsegu:

Zein eritxi dozu «big bother» izeneko programearen ganean?



Josu GARAI

Kokolokeria handia da niretzako, baina, halan da be, programa hori ia danok ikusten dogu, audientzia handia dauka-eta. Zeozergaitik izango da, ezta?



Oier BILBAO

Apurka-apurka jenteari burua jaten deutson programa kokoloa da. Nik neuk ez dot ikusten, ez dodalako gogoko.



Arkaitz BEITIA

Nahiko programa txarra da eta ez dau gazteentzako ikasbide lez balio. Jente arraroa dago programa horretan, gero!



Larraitz URIARTE

Lelokeria dala deritxot, baina danok ikusten dogu. Harrapatuta nauka.



Ziortza GARAI

Niri gustetan jat. Jenteak programa hori ikusi egiten dau, nontzebarrikeriagaitik edo.



Olatz LONGARAI

Lerdokeria dala uste dot. Lagun askok ikusten dogu, baina. Nontzebarriak garalako, aurki.

«Zozoak erroiari, eperdibaltz.»

ZER DERITXOZU?
abuztua 2000

TX-32

7

Bidegurutzearen ordeztze, biribilgunea Olaskoetxan

Daborduko, guztiok ikusita izango dozuen lez, Olaskoetxeko lehengo bidegurutzeara kendu egin dabe biribilgunea baten mesedetan. Holan, auto erreskadak eta han egoan ikusgaxtasuna saihestuko dira, eta, ondorioz, ezbehar gitxiago egotea aurreikusten da.



Bakioko toponimia aztergai

Batzuk honezkero jakingo dozuen lez, Bakioko Udalak, Euskera Batzordearen proposamenez, herriko toponimia aztertzeke lehiaketea deitu eban maiatzean. Halan, deialdi horretara aurkeztu zan gure artean ezaguna dan Iñaki Gaminde hizkuntzalari eta euskaltzain urgazleak eraturtako taldea. Halan bada, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide bik eta udal-batzarreko beste bik osotutako epaimahaiak oso ontzat hartu eban Iñaki Gamindek herriko leku izenak batzeko egindako proposamena, eta haren zuzendaritzapeko taldeari egin jako behar tekniko hau bideratzeko eskabidea.

Urrian hasita, gitxienez urtebete emongo dabe Bakioko jatorrizko izenak batzen. Horretarako, artxiboko lanaz ganera, adineko bakiotarrakaz beharrezko berbaldiak egin beharko dabez, ahalik eta informazinorik gehien eskuratzeko asmoz. Ostein, informazino guztia digitalizatu eta idatzi egingo dabe. Euskaltzaindiari hiru hilabeterik behin txostena aurkeztu beharko deutsoe, gure akademiak izenen era normalizatua emon daian. Hori dala eta, urritik aurrera zeuon etxeko atear zabaltzeko eskatu gura deusuegu, gure kultur ondare garrantzitsu horrerri geroan be eutsi deiogun.

Kontuz ibili haretzan, uretara joaterakoan,

Sorosleei esker jakin ahal izan dogun lez, aurtongo bainu denboraldian erreskate kopurua sano handia izan da. Izan be, sorospen zerbitzuaren aurre-aurreko alderdia ur-korronte handiko gunea da. Horrek makina bat arazo ekarri deutse gure segurtasunaz arduratu behar daben jagoleei. Halan da ze, kontuz ibili uretan sartukeran, eta egin jaramon sorosleek emondako aholkuei.

Rallyen Kopa Bakion



Bagilaren 24 eta 25ean aukera ezin ederragoa euki genduan Bakion berebil dotoreak eta ederrak ikusteko, esate baterako, Porsche, Mercedes, BMW, MG, Volvo, Austin, MGB... marketako ibilgailu klasikoak. Izan be, egun horreetan Euskadiko Rallya igaro zan gure herrian zehar.

Hartzako ikurrin urdina, lau haizeetara



Hartzan ikusiko zenduen lez, Bakiok aurton be eskurat dau ikurrin urdina. Zazpi besterik ez dira izan sari hori lortu daben hartzak. Gure itsasbazter honen kalitatearen erakusgarri, hatan be!



Beheko eleizea gutziz txukun

Zoritzarrez, 1999ko abenduko haizeteak kalte handia ekarri eutson beheko eleizeari. Hori dala eta, barrizatze lanak egin behar izan ziran han. Horreei esker, teilatua barritu, guzurrezko sabaia kendu, hormak margotu, aldareko hormea apaindu eta sitsak jandako jesarlekuak ordeztu izan dira. Benetan, txukun-txukuna egindako beharra.

Dezelerakinak bide nagusian zehar



Batuzon gogokoak ez badira be, argi dago ibilgailuek abiadura sano apaldu behar izan dabena herri barruan, bide nagusian iminitako dezelerakinen ondorioz. Halan da ze, hemendik aurrera astiro joatea beste aukerarik ez jaku lotzen.

ZER BARRI?

abuztua 2000

TX-32

9

BAI EUSKAL HERRIARI



Bagilaren 23an hasi ziran argazkikook BAI EUSKAL HERRIARI kanpainaren alde Bakion izenpetzak batuten.

ZERA ADIERAZI NAHI DUT:

Ni Euskal Herrikoa naizela, Euskal Herria dela nira Herri bakarra.

Nire borondatez ez dudala beste Herriko herritartasunik alortzen.

Euskal Herria, adiz, Herri ukatua eta zatiaketa izanik, egun egozailarino herritartasun espainiar zein frantziarra direla babas legez gure Herria berria aldarrikatu eta adierazi ahal ditek.

Oterkagun arabat ohiok dela euskal herria izan eta horietara azaldu nahi dugunok gure burua espainiar edo frantziar giza aurkeztu behar izatearena, bali adieraztearen aurrean, bati gizarako hasibat ariotako eginkizunetan ere.

Nire euskal herritartasuna adierazteko erabiliz honok dagozkidan giza eskubideen urraketa atengabea dela.

Izan ere, Nazio Batuen Bitzar Orokotriko, 1948ko abenduaren 10eko Blikuran Giza Eskubideen Autorpen Unibertsala onartu zen, non besteen artean, zera abatu zen:

15. ARTIKULUA:

1. Pertsona orok nazionalitate bat izateko eskubidea du.
2. Inon ez zaio nazionalitatea arbitrarioki ezartu.

Euskal Herria bere osotasunean onartatzen hartu eta euskal herria guztiok irekita dugun lehenengo Erakunde Nazionala den UDALBILTZA sortu dela jakirik, euskal herria gure herri herritartasun berrin, adierazpen demokratikoa bidea irakiz beharrezkotzat jotzen dudala.

UDALBILTZA EUSKAL HERRIARI AGIRI NAZIONALA JAKIN DEDALA ONARTZEKO SINADURA BILKETA

BAI EUSKAL HERRIARI

zure hitza, zure erabakia, zure sinadura

Bai Euskal Herriari

Ahor, norbera Euskal Herrikoa dala esaten da eta EUSKAL HERRIA bera dala norberaren herri bakarra. Euskal herritartasuna eukiteko daukaguzan eskubideak onartuteko eskatuten da. Halantxe onartu euskuzan Nazino Batuen Erakundeak (UNO) 1948. urtean, geuri zein munduko edozein herriri. Giza Eskubideen Autorpen Unibertsalean, hatan be.

Eskabide hau UDALBILTZA erakundeari egiten jako, berak Euskal Herri osorako Euskal Nortasun Agiri Nazionala sortu daian. Erduze izenpetuten.

Geure berbea, geure erabagia!

EROANDAKO HAREA DALA ETA

Bizkaiko Foru Aldundiak agindutako ikerketa eta azterketen arabera, igaz gure itsasotik kendutako hare kopuruak ez ei deutso Bakioko AREAGA haretzeari kalterik eragin, orduan gure haretzatik 200.000 metro kubo hare atara izan arren. Azterketok AZTI dalako fundazioak egin dauz, Aldundiak eskatuta. Haretzak neguan eta udan itxura ezbardina dauke. Horregaitik, guztira lau neurketa topografiko zein batimetrikoko (urpekoa) egin behar izan dabez. Ondorea: "ezin leiteke esan, kendutako hare kopurua kenduta, haretzearen morfologia aldatu danik". Ordurik hona Bakioko AREAGA haretzan egondako aldaketak naturalak izan ei dira, haretzearen berezko dinamikeak sortuta,



hatan be. Batutako informazioa ona izan arren be, aurtongo irailean zein 2.002. urtean azterketak egingo dira atzera.


ZER BARRI?
abuztua 2000

TX-32

10

«Mozkorraren saria, heriotza larria.»

MUNGIAKO SAIHESBIDEA



Saihesbidea esaten jako, herri barrutik joan beharren, herriaren kanpoaldetik doan bideari. Horixe berori zabaldu eben garagarrilaren 7an Artebakarran hasi eta Atelagino doan Mungiaiko saihesbidea dalakoa. Bilbotik Bakiora 25 minutuan egiteko bestekoa. Horrek, bakiotarrentzako alde onik badauka be, beste aldetik baina, urte osoan eta udan batez be, Bakiora etorriko dan auto uriola ez dala makala izango ekarriko dau.


NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Maiatzaren 8tik 19ra arte, arratsaldeko ordutegian, Kultur Etxean Nekazaritza Ekologikoan hasteko ikastaroa emon eben. Bertan hainbat gai interesgarri aztertu ziran: nekazaritza, ortuzaintza eta frutagintza ekologikoak, lugintza alternatiboak, abelazkuntza ekologikoa, e.a.

Ikastaroa amaitu ostean, gai horretan jarraitu gura dauan lan taldetxua sortu da. Talde horretan baktxaren esperientziak azaldu, sortutako arazo eta arduretzaz berba egin, eta danon artean aurrera egin gura dabe nekazaritzako zaletasuna aberasteko. Edonorentzako esku hartzeko deia eginda dago. Hurrengo batzarra datorren irailaren 19an izango da Kultur Etxean, arratsaldeko 7:00etan.



MENDIKO TXIRRINDOLA IBILBIDEAK



Joandako garagarrilaren 20an, txirrindolearen ganean ibilteko ibilbide barri bi zabaldu ebezan gure herrian, hau da, "Jesus Loroño" eta "Valentin Uriona" izenekoak. Lehenengoa (14 km) Sollube mendiaren inguruan dago eta bigarrena (12,5 km) Jata mendiaren inguruan. Danetara 25 kilometro dira. Ibilbide bien artean, 14 km aurgoran eta beste 10 km aurbeheran egitekoak dira. Ezin leiteke esan, bada, ibilbideok ibilteko lar errezak diranik. Hori bai, ibilbideei jarraituteko behar diran beste bide seinale imini dabez. Txirrindularitzaren bidez ingurugiroaren aldeko jokaerea indartu gura dabe. Bizkaiko Foru Aldundia izan da, Euskadi Fundazioagaz batera, horren guztiorren eragilerik nagusia.

Esan behar da be, ibilbideen esku informazioan leku izenen erabilera okerra egin dabela, arteztu beharrekoa, hatan be.

ZER BARRI?
abuztua 2000

TX-32

11

IPUIN EROTIKOAK



Joandako maiatzaren 5ean ipuin erotikoak entzuteko aukerea euki genduan TXOBERNE tabernan. Berrogei minutuko entzunaldian 3 ipuin kontatu euskuezan Basauriko Antzerki Eskolako ikasleak diran neska biok: Maider Jurio eta Nerea Sánchez. Ipuinak Basauriko EUSKARABILA euskera taldeak eratutako txapelketetako azken urteotako ipuin irabazleak ziran:



- «Azken aukera» (Rafa Arrizubieta).
- «Zapata barriak» (Euskaltegiko ikasleak).
- «Begia itxi eta imajinatu ezazu» (Xabier Etxebarria).

Sasi-striptease bat eta guzti, makina bat barre eragiteaz ganera, sano irakasgarri eritxi eutsoen askok neskak kontatutakoari, halan bada, batzuen jakingurea asetu eta apalduz. Ea datorren urtean antzekoren bat barrero entzun eta ikusteko aukerea daugun!

ASTE SANTUKO TAILERRAK




Aste Santuan, apirilaren 25etik 28ra arte, txikientzako tailerrak eratu ziran Kultur Etxean, adinaren arabera txanda bitan eta euskera hutsean. Argazkietan nagusien taldea ikusi geinke.



SAN PELAIOKO BASELEIZAN IKUSTALDIAK

Bakioko Turismo Bulogoko beharginek eratuta, XII. gizaldian erromaniko eran egindako San Pelaio baseleizea ikusten joan gura dabenek aukerea zabalik dauke bera konpondu dabenetik aurrera. Ikustaldiak guztiz azalduak izango dira, hau da, San Pelaio baseleizearen ganeko behar diran besteko azalpenak emongo jakez ha ikusten joango diranei. Horretarako gitxieneko batzuk eskatuten dabez baina, arean da, 10 lagunetik gorako taldeetan alkartu eta buruko 200 pezeta ordaindutea. Ordu erdiko ikustaldia izaten da. Inork gura badau honelango ikustaldi alzalduetan eskurik hartu, aurretiaz Bakioko Turismo Bulegora deitu beharko dau izena emoteko. Ganera, baseleizea ikusten joan ez eze, inguruetako txakolindegietara be hurreratuko dira, Bakioko txakolina agora eroaten, jakina.



BAKIOTIK SENPERERA

Urtero lez, aurtongo maiatzaren 14an be egin zan Iparraldeko ikastolen aldeko jai: **HERRI URRATS**, Senpereko urtokiaren inguruan. Hara hurreratu gintzazan Bakiotarrok be. Eta joan be, Bakioko Euskera Batzordeak eraturako autobus batek eroanda 20 bat lagun joan ziran. Beste batzuk autoetan hurreratu arren, autobusean urterik urtera lagun gitxiago joaten da. Hara joandakoek, ostera, giro euskaldun ezin hobearorik gozatu eben.

DIAPORAMA EMONALDIA

Maiatzaren 19an, arratsaldeko 8:15etan, diapo-emonaldia euki genduan Kultur Etxean. Namibiari buruz

Diapo-emonaldia

"NAMIBIAN ZEHAR"




Hizlaria: ARTURO ELOSEGI

Euskal Herriko Unibertsitateko
Ekologia-Irakaslea

Noiz: Maiatzak 19; 20:15 tan

Non: Kultur Etxeko Bideo-Gelan



hainbat gauza interesgarri entzun eta ikusi ahal izan genduzan Arturo Elosegiren eskutik.

IKASLEEN ERAKUSKETEA



Kultur Etxeko ikastaroetako ikasleen pintura eta esku lanak ikusi ahal izan genduzan erakustaretoan bagilaren 1etik 16ra arte.

ZER BARRI?
abuztua 2000

TX-32

13

PINTURA LEHIAKETEAK

Joan dan bagilaren 17an Bakioko III. Kaleko Pintura Lehiaketea egin zan. Guztira, 18 eskuhartzaile izan ziran, eta irabazleen izenak honeexek dira:



Lehenengo saria (akuarelea):
Bigarren saria (oleoa):
Epaileen aitamen berezia:

Piedad Santamaría
Julio Gómez Mena
Itziar López Zorroza

MUSIKA ESKOLEAREN ENTZUNALDIA



ZER BARRI?
abuztua 2000

TX-32

14

Bagilaren 21ean, arratsaldeko 5:30etan, Eskolako oktogonoan, Bakioko Musika Eskoleak ikasturte amaierako entzunaldia eratu eban. Bertan lau urterik gorako ume eta gazteek musika tartetxuak eskaini euskuezan.

SAN JOAN DOLOZAK 2000

Abuztuaren 26an

- 12:00etan Gazteluak, haretzan.
- 18:00etan Esku pelota partiduak (1. finalerdia).
- 24:00etan Musika jaialdia, Zubiaurren: Leihotikan eta Split taldeak.

Abuztuaren 27an

- 10:00etan Nekazaritzako erakusketea.
- 18:00etan Pala txapelketako finalerdia.
- 18:00etan Herri kirolak.
- 22:30etan Gau jaia, Portuondon.

Abuztuaren 28an - San Agustin Eguna

- 18:00etan Futbitoko finalak.
- 18:00etan Esku pelota partiduak (2. finalerdia).
- 20:00etan Jai hasikerako danbadea. Kalerik kalekoa Zubiaurregino.
- 22:30etan Dantza ekitaldia eta abesti jaialdia, Probalekuan.
- 24:30etan Kontzertua. "Etzakit" taldea, Zubiaurren.

Abuztuaren 29an - San Joan Doloz Eguna

- 10:30etan Kalerik kalekoa (Zubiaurretik Ondarreko zubiragino).
- 12:00etan Urizarretan, mountain bike, asto lasterketea. M. Bike eta astoen arteko desafioa. Soka Dantzea eta erromeria.
- 17:00etan Tortila txapelketea (Enderika inguruan).
- 18:00etan Pala txapelketako finala.
- 19:00etan Gaztetxuentzako mozorroak (Enderika inguruan).
- 20:30etan Herri kirolak, probalekuan.
- 23:00etan Su artifizialak, haretzan.
- 24:00etan Mozorro lehiaketea.
- 01:45tan Karaokea.

Abuztuaren 30ean - San Joan Doloztxu Eguna

- 11:00etan Kalerik kalekoa. Ondarreko zubitik Zubiarregino.
- 12:00etan Galdakaoko ANDRA MARI eta Irungo MEAKA dantza taldeak, Zubiaur inguruan.
- 12:15etan Jotak eta musika ekitaldia.
- 17:30etan Txalupa jatsikerea.
- 18:00etan Esku pelotako finala.
- 18:30etan Umeentzako kirolak eta txalupa jatsikerearen sari banaketea.
- 22:30etan Ekitaldia probalekuan.
- 24:30etan Musika ekitaldia Zubiaurren: Triki Ta Ke musika taldea.

Abuztuaren 31n - Eneperi Eguna

- 11:00etan Kalerik kalekoa. Zubiaurretik Ondarreko zubiragino.
- 12:00etan Paella txapelketea, Urizarretan.
- 17:30etan Gorritiren jokoak, Urizarretan.
- 20:00etan Urizarretatik Zubiarregino jatsikerea.
- 24:00etan Musika jaialdia: Joxe Ripiau.
- 00:15etan Suzko zezena.

MARRAZKI TAILERRAK


Garagarrilaren 10, 12 eta 14an, goizeko 11:00etatik 13:00etara, 4 urterik 7urtera bitarteko txikiak Kultur Etxean ibili ziran eurek egindako marrazkiez mural berezia egiten.



ZERAMIKA TAILERRAK

Garagarrilean, 7 urtetik 12 urtera bitarteko txikiak zeramika tailerretan esku hartu dabe, txanda bitan. Bertan, eskuz egindakoak pitxarra, zebra, dortoka, eta oilarrak izan dira.

UDALEKU IREKIAK BAKION




Garagarrilaren 17tik 28ra arte, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 5:00etara, 24 ume eta begirale bi ibili jakuz Bakion, gora eta behera, olgetan, mendian, kirol eta tailerrak egiten, haretzan, jokoak prestetan..., eta begiraleen "akuilukaden" laguntzeaz euskera huts-hutsean, ganera.



IPUIN KONTALARIA


Hiruki taldeko ipuin kontalariak Kultur Etxeko Liburutegira etorri jakuzan, garagarrilaren 20an eta 27an, arratsaldeko 6:00etan, txiki-kientzako kontu zoragarriak kontatzen.



ZER BARRI?
abuztua 2000

«Ezina, harria baino gogorragoa.»

TX-32



XIV. NAZIONARTEKO FOLKLORE JAIALDIA BAKIO

Uztailak 30 de Julio
Prabelkuan

Gabeko 10,30tan Noche
Probadero

ESKOZIA
(ABERDEEN)

AURORA

FRANTZIA

(NIMES)

LES FARANDOLEURS CHEMINOTS NIMOIS

VIETNAM

(HANOI)


VIETNAMEKO ELKARTE FOLKLORIKOA

ITXAS-ALDE DANTZA TALDEAK ANTOLATUTA
BAKIOKO UDALAREN LAGUNTZAGAZ



CAJA LABORAL
ELISKADIKO KUTXA

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETEA



Aurtongo jaietako kartel saritua Bilbokoa dan Marta Fernándezek egina izan da.

NAZINOARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIA

ZER BARRI
abuztua 2000

Urtero lez eta goiko probalekuan, garagarriaren 30ean, gaueko 10:30etan hasita, Nazinoarteko Folklore Jaialdia izan genduan herrian. Bertan izan ziran Eskoziako Aberdeeneko eta Frantziako Nimeseko dantza taldeak. Urtero lez be, bakiotar eta udatiarren erantzuna beroberoa izan zan. Atzerritarrak sano pozik joan ziran gure arterik. Bakion ez eze, Gernika, Derio eta Forun be dantzan egin eben.

MUSIKA ASTEA INOZ BAINO ARRAKASTATSUAGOA

Aurtengo Musika Astea joan jaku eta esan beharra dago, aurtengoa, bai ikusleen kopuru aldetik bai musikarien kalitateagaitik, inozkorik arrakastatsuen izan dana. Talde guztien mailea ikaragarri ona izan arren, azpimarratzekoak izan dira Moskuko Birtuosoen eta VOX AURAE ganbera orkestreak eskainitako kontzertu gogoangarriak. Era


berean, ezin dogu ahaztu probalekua sama-raino bete eban OSKO-RRI taldearen egundoko jaialdia, are gitxiago ekitaldirik jendetsuena izanda. Halan da ze, merezi izan dau eratzailleek aste hau eratzeko egin daben ahalegin handia. Hurrengo urtekoa aurtengoa besteko ikusgarria izango ahal da!



TX-32

16

KULTURA ETA ASTIALDI EGITARRAUA



Datozan hilabeteotan kultura eta astialdi ekintzak eurrez eukiko doguz gure herrian. Ekintzok Kultur Etxeko, Turismo Bulegoko, Itxas-Aldeko eta Euskera Batzordeko kideen ahaleginaz zein Bakioko Udalaren babesaz eratu ahal izan dira. Gazte, heldu zein zaharrentzako danetariko ekintzak egongo dira. Eratu egiten dira gauzak herrian, orain herritarren erantzuna beharrezkoa da egindako ahalegina onuragarria izan dakigun. Esan behar dogu be, ia ekintza guztiak euskeraz izango dirala.

ABUZTUAN

- 1-4 Ardaoari buruzko ikastaroa.*
- 3an Bertso afaria.
- 5-6 Piragua ikastaroa.
- 7an Zinea Kalean (Deep Blue See).
- 7-10 Olgeta tailerrak.*
- 9an Urtekerea: ENKARTERRIETARA joateko.

- 14-26 Erakusketea: EDU GONZALEZ.
- 15ean Andra Mari Eguna: ITXAS-ALDEren dantzaldia.
- 16an Bideo emonaldia gauean.
- 18-20 Eskimotaje ikastaroa.
- 20an XXXIV. Marmita Txapelketea.
- 23an Arkuz jaurtigiteko ikastaroa.
- 26an Harezko Gazteluen Txapelketea eta eskalada murrua.
- 27an Nekazaritzako XV. Azokea
- 28-31 Bakioko jaiak.
- ?-? Dantza ikastaroak: jotea, arin-arina, Larrain Dantzea.*

IRAILEAN

- 3an Eskulangintza Azokea.
- 3an VIII. Argazki Lehiaketea.
- 5ean Bideo emonaldia gauean.
- 15-17 Port Aventura osterea.
- 18-23 Andaluziara osterea.
- 22-24 Iparralde-Hegoalde Surf Txapelketea.
- 29an San Migel Eguna Zumetxagan.

* Euskeraz baino ez. Izena aurretiaz emon beharko da.

OHARRA: Argibide gehiagorako jo eizue Kultur Etxera (94.619.33.69) edo Turismo Bulegora (94.619.33.95). Kontuz!, adierazotako egunak be aldatu leikeez-eta. Zuhur egon! Goian esandakoak ez dau kenduten ekintzaren bat edo batzuk bertan behera iztea zein beste batzuk be gehituta.

KULTUR ETXEKO ORDUTEGIA

Kultur Etxeak, garagarril eta abuztuan, ordutegi hau izango dau:

Liburutegia:
astelehenetik barikura, 9:30etatik 13:30etara.



Gazte-gelea:
astegunetan, arratsaldeko 5:00etatik 9:00etara eta zapatuetan, arratsaldeko 5:30etatik 9:00etara.

ZER BARRI?
abuztua 2000

TX-32


17

Argazkitan DONIENE



SUA

Doniene bezperan biztuten dan suak su magikoagaz zerikusia daukalakoan gagoz. Suaren inguruan egiten ziran guztiak gaixotasunak osatuteko, gatzak albotik uxatuteko zein magia egiteko izaten ziran. Ekanduok oraintsu artean bizi-bizirik egon dira gure Herrian, antxina-antxinako siniskerok kristautasunak ekarritakoakaz bat eginda, egon be. Sua izan da eta bada garbitzaile, gauza eta gatz guztien garbitzaile. Suak berotasuna dakarsku gogora. Sua eguzkiaren ezaugarria da, lurreko eguzkia, berotasuna, azken baten. Eguzkia eta sua bizi iturriak dira. Izan ete da eguzkia antxinako euskaldunen jainko nagusia? Izan ete dira euskaldunak jainko horren, eguzkiaren seme-alabak, *eguzkikoak* edo *euzkoak* deritxenak? Batek daki. Leizar abarra, eguzkilorea,... be Doniene suaren inguruko magiaren artekoak baino ez dira. Urteko udaburua ospatuteko gure Herriak sortutako siniskera mardoaren ederra!






ARGAZKITAN

abuztua 2000

TX-32

18



**«Doniene bagileko, gure soloan lapurrik ez,
balegoz be, erre beitez.»**

Teodoro Zumarraga Muruaga

BAKIOKO AGOAZIL ZAHARRA

Goizero, uda ta negu, motor baltz txiki baten ganean txiri-txiri Kurtzikenetik Gure Etxea-rantza etorten nonor ikusten badozue, egon ziur Teodoro agoazil izandakoa dana.

Teodoro Bakion jaio zan 1919. urtean. Bakioko herriko eskolan 12 urterarte ibili ostean, gau-eskolan osotu jezan ikasketak.

TX: Zure bizitza luzean beti euki dozu agoaziltza beharra?

TZ: Bai, zera! Hainbat lekutan egin behar izan dot behar. Aldundian bidegin, zerran, itsasoan, Ameriketara unai eta azkenengo 22 urteetan agoaziltzan.

TX: Soldaduzkarik ez dozu egin, edo?

TZ: Egingo ez neban, bada! Soldaduzkatik aberatsak bakarrik libretan ziran. Eta guk, txirook, ostera, sei urte egin behar. Iruñean egin neban, «Regimiento America» deritxonean.

TX: Ameriketara be izan zarala esan dozu?

TZ: Hogeia urtegar Aldundian sartu nintzan bidegin. Baina, Gernika erre eta frankistak sartu ziranean, handik bota ninduen. Behar barik eta nire burua baltz ikusita, itsasorako bidea hartu neban. Hilabete batzuk Pasaian igaro eta kartilea lortu nebanean, «Monte Teide» itsasontzira igon neban, itsasgizon lez. Baina Txilen geldituteko asmoz. Txilera heldu nintzanean, itsasontzia itzi eta, inoslari antzera, bertan lotu nintzan. Han be txakurrak ortozik ebilzala-eta, Argentinara joan nintzan, ez paperik, ez inongo agiri barik.

TX: Ez zara makala izan, bakar-bakarrik, munduko beste alderdi ezezagun haretan bizimodua aurrera atarateko.

TZ: Han ez nekian nor eta zer nintzan. Ez neukan agiririk eta. Beharra, bai lortu egin neban, unai lez basamortuan behiak jagoteko, baina. Ezin inoz urira joan, ez neukan paperik, ez dirurik eta. Argentina lurralde aberatsa da, baina ez da izan niretzat. Egia da gaur hemen esaten deustena: Amerikano. Pozik egon nintzan etxerako bidea hartuteko, behar beste diru batu nebanean.

TX: Bakion suerte hobea izan dozu, orduan?



TX: Zenbat urte-gaz jubilatuz zintzazan?

TZ: Hirurogeita bost urtegar, orain dala hamabost urte. Gaur egun, Bakion bizi naz, Kurtzike-ne baserrian, pozik, ganera. Egia da Iparagirreraren abesti zaharrak dinona:

« Gazte gaztetatikan, herritik kanpora, estranjeri aldean pasa det denbora. Herrialde guzietan toki onak badira, baina bihotzak dio: zoaz Euskal Herrira. »

Euskal Herria lango herririk ez dago munduan. Jendea hobeto bizi danik, ez behintzat. Eta Euskal Herrian, barriz, nagusi Bakio. Amerikak hemen, ez han.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

Berbalapikoa

agoazil= udaltzain, txinel.
jezan= ebazan, zituan. (Bakioko aditz zaharra) (*dxesan*)
bidegin= kamineru.
soldaduzka= soldadutza. (Bakioko berbea)
Aldundia= Diputazioa.
unai= behiak jagoten dauzana.
txiro= behartsu, ezeuki.
ineslari= ines egin behar izaten dauana. (Bakioko berbea)
agiri= dokumentazio.
azterketa= etsamina.
su-ziri= bolandera, txapligu.
espetze= kartzela.
txapeloker= goardia zibil.
jeen= eben. (Bakioko aditz zaharra) (*dxien*)
jeezan= ebezan, zituen. (Bakioko aditz zaharra) (*dxiesan*)
zedizan= eitezana. (Bakioko aditz zaharra) (*sedisen*)

ZELAN ESATEN JAKO HORI DAUKAN ETXEARI?



Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea irailaren 8an amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia. Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Arteragokoaren erantzun zuzena:

«**Bitzganera**»

Irabazlea: **Ainize Martinez**

Amen dozuez **Ainize Martinez** eta beraren laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.



TXOBERNE




Berton-bertokoa gozatuteko
leku aproposa
Bakioko txakolina, sagardaoa
eta jateko giro ezin hobean

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81

ZUHUR IBILI
abuztua 2000

TX-32

21





ARGAZKITAN
abuztua 2000

DONIENE EGUNA

Bagilaren 24an Gaztelugatxerako jokera handia besteko zaharra dago Bermeon zein Bakion be. Herritarrak oinez joaten dira bertaragino ekandu zaharrari urtero-urtero eutsi guran edo. Han kanpaia jotea ohidalako gauzat hartuta dago, urte horretan Donieneren bitartez suerte hobe euki edo mesederen bat lortuko dabelakoan. Batzuk mezea entzuten dagozan artean, beste batzuk, oster, haragino igoteko egindako ahalegina bardinduteko jate zein edateari bildur barik ekiten deutsee. Gehienak papar-bizkarrean eskapularioak jantzita ibiltzen dira inguruan. Zelan edo halan, baktzak beraren erara, egun horren esangureari eusten jako oraindikarren. Herritarren bihotzetan egun hori sakon-sakon sustarrak hartuta dagoalako.



TX-32



Eneperi

ENEPERI izena (eta jai eguna) sano ezaguna da bakiotar eta bermeotarren artean. Egon be, Bakiori lotu lotuta dago. Beraren jatorria zein izan leiteken, azaldu gura deusut, irakurlea, hemen dakartsuedazan hurrengo lerrootan.

Labayru eta Iturriza historiagileen arabera, Gaztelugatxeko San Joan Bateatzaile baseleizearen lehen aitamena XI. gizaldikoa da. 1053. urteko agiri baten Gaztelugatxeko eleizea Aragoiko San Juan de la Peña izeneko monastegiaren ardurapean lotu zala dakar, Bizkaiko Jaunak hareri doarik emonda edo.

1172. urtean, barriro be, Santa Maria de la Vid izeneko ordena pre-motratensiarri emon eutson Gaztelugatxeko baseleizea Bizkaiko Jaunak, bertan monastegia sortu eien, aurki. Horregaitik guztiorregaitik eta eleiztarrentzako haragino joatea asago eta neketsu egiten ekielako, arean ezeroso, San Pelaio baseleizea egin eben XII. gizaldian. Eleizkizunetara joaten jarraitu ahal izateko, azken baten. Halan eta guztiz be, San Joan eta San Pelaio parrokia bakarra izan ziran. Hilerria San Pelaion egon bazan be, San Joanen egon zan bateo ponte.

1945. urtean, Gaztelugatxeko San Joan Bateatzaile baseleizea 100 urtean bertan behera itzita egon ostean, konpondu eta barriztau egin eben. Urte haretako dagonilaren 29an, lehenengo erromeria egin zan Gaztelugatxe inguruko Urizarretako zelaietan (orduan Oruezarreta), arean da, gaur egunera arte herrian bizi-bizirik iraun daben «San Joan Dolozak» edo «Sanjolazak» jaien lehenengo ospakizuna. Jai egun horrerri «San Joan Doloz eguna» edo «Sanjolaz eguna» esaten jako, eta han goian egiten da. Hurrengo jai egunari, dagonilaren 30a, «San Joan Doloztxu eguna» edo «Sanjolaztxu



eguna» esaten jako eta Bakion egiten da. Baina hirugarren jai eguna «Eneperi eguna» da eta Urizarretako zelaietan egiten da, han Gaztelugatxeren begiradapean. «Eneperi eguna» dagonilaren 31an egiten da. Zalantza barik hiru jai egunok San Joan Bateatzailearen inguruko jaiak dirana, hau da, berari samea ebagi eutsoela ospatuten danekoak.

Kontua, baina, ez da hemen amaituten. «Eneperi eguna» Bizkaiko beste leku batzuetan be egiten da. Esate baterako, Mungiako Atela auzoan (Belako) dagoan San Anton baseleizearen inguruan, egun beratan, dagonilaren 31an eta «Eneferi» izenagaz. Hurrengo egunean, irailaren leian, handixik asago ez dagoan Llona auzoko Santa Madalen baseleizearen inguruan «Eneferi-ren bigarren eguna» egiten da. Egun biotan Atela, Llona eta inguruetako auzokoak joaten dira leku biotara. Horrek guztiorrek «Eneferiak» izen orokorragoa hartuten dau bertakoen agoetan.

Berberori, oker ez banago, izena ondo gogoratuten ez dodan Bizkaiko beste baseleizaren baten inguruan be egiten dala uste dot.

Nire eritxi apalean, **ENEPERI** izena **DONIENE FERIA** (→ENE+PERI) izenetik etorri leiteke. San Joanen omenez egun beratan egingo zan feria dala eta, beharbada. Sasoi baten, Bizkaian zabal egingo zan jaia aurki.

Baina hori ez eze, Azkuek halan batusa, Gipuzkoako Elgoibar eta Azpeitian «Donaperi Eguna» be egiten eben, arimen aldeko eguna, hatan be.

Hori gitxi bada, euskera zaharrean San Pedrorri «Doneperi» (Dona Peri) esaten ekiola eta San Pedro ospatuteko aukerea egon badago, behintzat, dagonilaren 30ean, «Eneperi» egunetik hur.

Esan behar da, baina, lehen Gaztelugatxeko San Joan-eri Doniene esaten ekiola. Halantxe esaten jako Bermeon. Gaur egun, zaharren artean oraindikarren, bagilaren 24aren inguruan egiten diran jai «Donieneak» esaten jake, bai Bakion bai Bermeon be.

Beste alde batetik be, San Pelaio eguna edo jaia, bagilaren 26an, oster, dagoniletik asago dago. **ENEPERI** horren ekandu eta kulturatik asago. Eta ez dot uste

Doneperai (San Pelaio, euskera zaharrean?) izenak haregaz ezelango zerikusirik euki leikenik, anterea euki arren.

Amaituteko, agoskerea jagon behar dala eta, bai «San Joan Dolozak» bai Urizarretaren ondoan dagoan «San Joan Alde» baserriaren izena era honetara esaten dira Bakion zein Bermeon gaur egun:

San Joan Dolozak

(sandxondolosak edo sandxolasak)

San Joan Doloz eguna

(sandxondolos egune edo sandxolas egune)

San Joan Doloztxu eguna

(sandxondolostxu egune edo sandxolastxu egune)

San Joan Alde baserria

(sandxoanalde)

Danoi argi lotu dakigun, ENEPERI dagonilaren 31an Urizarretako zelaietan egiten dan jaia da eta ez leku haren izena. Leku harek **URIZARRETA** deritxo eta ez besterik!
Ez ahaztu eta zabaldu!

Iniaki MARTIARTU

EGUZKITIK BURUA JAGON!



Urte osoan, baina batez be udan, eguzkipean soineko gitxigaz gabilzanean, badagoz gogoan euki behar doguzan gauzak, gero gerokoak etorri ez dakiguzan:

Zelango azala: Azal zuridunek 20ko babes mailea dauken kremak erabili behar dabez. Baltzaranez, gitxienez, 15eko babes mailea daukenak. Orainenak daukezanak kontu handiz ibili!

Eguzkialdia: Ez egon eguzkipean eguerdiko hamabietatik arrastiko laurak biartean.

Eguzkigurakeria: Hartzara ondo pasetan, olgetan eta uretan sartuten joan behar da. Ahaztu eguzkia hartu behar itsu hori.

Adina dala-eta: 20 urterik beherakoek dauke arriskurik handien.

Azken aholkua: Etxetik urten baino 20 minutu lehenago krema igordi, eta hartzara heldu ta gero, ordu birik behin.

Berbalapikoa

doarik= ezer ordaindu barik.

ezeroso= era txarreko.

hilerri= kanposantu.

bateo ponte= bateo harri.

arean da= hau da.

orokor= nagusi.

hur= paraje, ondoan.

antera= antz. (Bakioko berbea)

Berbalapikoa

babestu= jagon.

orainen= espil, natu, azaleko gunetxu baltza.

adin= edade.


GAI BEREZIA
abuztua 2000

TX-32

25

«Zalditik astora.»

SAN PELAIO EGUNA



Bagilaren 26an, urtero lez, San Pelaio eguna ospatu genduan herrian, goian bertan, San Pelaio auzoan. Baseleizan mezea entzun ostean, txalapartari, bertsolari eta soinulariek ekin eutsoen bakotxak bereari. Ohiko dan lez, han batutako herritarrei hamaiketako ederra jaten emon eutseen. Geroago, auzokoen arteko bazkaria. Jaitxu apala besteko esanguratsua gure herrian San Pelaio egunekoa!





ZAHARRAK BARRI



Bai, haretza baketsua urte hareetakoa gure **Areaga!** Bertatik hasita eta itsasbartzerrari jarraituz, **Gaztelugatxegino**, asko ez baina, ingurua zeozer aldatu dana ikusi geinke argazkiei begiratuta. Ahamen be, lorratzak itzi dabez gizakiek. **Askada** inguruan, eta goratxuago be, etxe garai (eta motz) batzuk eregi dabez, baita **Karabiaga** inguruan be. **Talaiapen**, ahor, hatx artean, etxe mardoa zutundu dabena be ikusi leiteke. Ostean, **Oietaginoko** unadearen beheko aldean, harrobia egon zan tokian, gure «urak» garbituten dauzan uren araztegia daukagu, harri eta hatx artean ostuta. Baina horixe bai, handixik eta **Gaztelugatxeginoko** itsasalde zein lurraren erliebeari, gorabehera eta sartu-urtenez beteta (**Atxulo** ingurua, **Lurgorri** lurmusturra, **Gorosti** mendia), badirudi gizakiek oraingoz ez deutseena larregi eragin. Behintzat, zeozerreri eusten deusogu garbi eta ukutu barik. Halan jarraituko ahal dau urte askotan! Hori, baina, «gure» eskuetan dago.

ZAHARRAK BARRI

abuztua 2000

TX-32

27

Anartz ORMAZA

Orain arteko irrati sistemak, bai FM bai AM, era guztietako interferentzien menpean egon dira. DAB sistemeagaz amaitu dira holango arazoak. Azken belaunaldiko irrati teknologiarren ganean berbetan gabiliz: irrati digitalaren ganean. Honegaz batera, CD kalitatezko seinalea, askotariko erabilkerak eta interferentzia bako emisinoa lortzen dira.

DAB, Datorren Audio Barria

Artikulu honen izenburuan agertzen dan berba jokoari jaramon egiten badeutsogu, bidean jatorkun teknologia barriaren ganean (beste


ezta autoan gozanean be. Horrezaz ganera, audioaren kalitatea ezin hobea izango da. Betiko antena arruntaren bitartez kalitatezko CD

soinua entzungo dogu. Baina horreek ez dira DABk eskaintzen dauzan barrikuntzarik nagusienak. Izan be, barritasun nagusia bestelango informazioa erakusteko ahalmen eta interaktibitatean datza.

“DAB teknologia erabiliz, pantailako menuan agertuko jaku une horretan entzun leiteken irratiaren zerrendea”

Internet-eko edukina be harrapatu ahal izango dogu geure irratiaren artez-artezean.

Baina gure irratiaren irratien arrunt lez erabili gura badogu, sistema honek hobakuntzak dakar: DAB irratiaren



bat) berbetan gabilizana konturatuko gara. Digital Audio Broadcasting edo audio digitaleko irratiaren hilabete honetan abian imini eta tarteko epean mundu osora zabalduko da. Orain dala bi edo hiru urte hasi ziran probak egiten mundu osoan eta, gaur egun, gutxi gorabehera 230 milioi pertsonak jasoten dabe haren seinalea, baina orain hasi eta 2006. urtera bitartean guztiz indarrean iminiko dabe.

Baina zer da DAB dalakoa? Hainbat eratan zabaldu leiteken irrati digitala da: emisinoa bai satelitez bai kablez egin leiteke, eta, orduan, ez dau ezelango interferentziarik hartuko,

IRRATI ALKARRERAGILEA

Irrati digitalak soinua ez eze, testua eta irudiak be bialdu leikez gure etxe edo autoetako irratiaren ganean. Halan bada, gure aparatuaren bestelango informazioa be jaso ahal dogu:



erabiliz, ez dogu ibili beharko entzun gura dogun irratiaren topetan, pantailako menuan agertuko jaku-eta une horretan entzun leiteken irratiaren zerrendea eta entzuten hasteko

nahikoa izango da entzun gura doguna aukeratzea. Interaktibitatea benetako aukerea dan lez, hasi dira pentsetan irabazi komertziala zein izan leiteken: erabiltzaileak gura dauan eran aukeratutako irratiaren programak, etab. Ordaindutako zerbitzuak, horreek guztiorreek, jakina!

Irratiaren eta antzeko tresnen ekoizle nagusiak hasi dira teknologia hori onartzen daben aparatuak egiten. Daborduko, aukera osoa daukagu: etxerako irratiak, autorako irratiak, baita walkman erakoak be.

“Irrati digitalak soinua ez eze, testua eta irudiak be bialdu leikez gure etxe edo autoetako irratiaren ganean”

eguraldiaren iragarpena, trafikoaren egoera edo egunkarietako azken barriak irakurri gein bezala berebileko irratiaren ganean, baita entzuten gagozan abestiaren berbak be. Azkenik,



olabarri

Orain arte agertu doguzan baserriak beti lotu izan doguz euren jatorriagaz: bata dorretxea zala (IBARRA), bestea familia ospetsutik etorrela (MUXIKENE)... Oraingo honetan, eta haren izenak berak esaten dauan lez, ola (burdinola) baten dauka jatorria: OLABARRI.

1745. urtean, Ondarra izenagaz ezagututen eben. Izan be, Ondarra baserriaren olea izango zan-eta. Orduan Frantziska Elexpuru zan jaubea. Elexpuru sendia hainbat baserri eta lurren jaube izan zan sasoi hatan. Domingo Renteria eben errentadore Olabarrin. Ordurako errota lez be ezagututen eben bakiotarrek. 1796ko fogerazinoetan Olabarri izenagaz agertu jakun, gaur arte eutsi deutson izenagaz, agertu be. Orduan, On Manuel Elexpururen jaubetzapean egoan.

1764.ean, bertan behar egi-teagaitik, alogerearen truke 164 dukat ordainduten ebezan, Goi-kolean baino gitxiago.

1768. urtean, oraindinokarren Frantziska Elexpurrena zanean, Frantzisko Andraaka administrariak olea eta errotea jaiegunetan be

erabilteko eskatu eban. Orduan, eleizeak halan aginduta, ezin eitekean jaiegunetan behar egin eta. Gora-beheraren batzuen ostean, eskatutakoa onartu eien lortu eban.

1775. urtean, Ondarrako burdinolea zein errotea tasatu egin ebezan: 29 auspotzar, 2.425 errealen balioan; mailutzar bat, 1.250 errealen balioan, ingudeak 1.300 erreale... eta holan 80 partida eukazan zerrenda luzea bete arte. Guztira 17.149 erreale eta 8 maraitan tasatu eben.

1776. urtean, Ondarrako burdinolako olagizonak, On Frantzisko Andraaka, Ibarrangeluko baso bateko artadia eta gurbiztia hartu ebazan errentan, burdinolea ikatzez horniduteko. Burdin-mea osterera, Enkarterrietatik itsasoz ekarten eben eta Areaga haretzan izten eben, burdinolatik hur.

Olabarriko Eusebio Ugartek dinosku, beraren aitita-amamaren sasoi burdinolea oraindinokarren ibiltzen zala, ez, osterera, gurasoen sasoi. Hori bai, errotea orain urte batzuetara arte ibili izan da, 1.989. urtera arte, udalak San Pelaioko uren bideak barriztatu artean, hatan be. Halan be, ubiderik badauka eta andaparearen

hormek be hor diraue zutunik. Euki be, herriko andapararik handiena ei eukan.

Gaur egun, baserri lez erabilten baino ez daben etxe horrek historian zehar hainbat aurpegi erakutsi deuskuz: burdinola, errota, baserri. Eta baserria baino ez bada be, harek daukan izenak beti ekarriko deuskuz burura izan dauzan historia eta izakerea.

Anartz ORMAZA

Berbalapikoa

lotu= batu, alkartu, bat egin.

jatorri= etorburu, nondiko.

fogerazino= antxina egiten zan familien zerrendea.

ingude= burdineari itxurea emoteko azpiko euskarria.

marai= orain dala 300 urteko dirua.

gurbizti= gurbizi askoko lekua.

burdin-mea= burdinazko minerala.

andapara= errotako ubidea.

José María González-Pintogaz berbetan

Bihar-etzi gure herria urigintzako ikuspuntuaren aldetik zelan egituratu leiteken azaltzen dauan alkarrizketa interesgarria egin deutso Itxaso Urazurrutiak José María González-Pinto Bakioko arau subsidiarioen egileari. Halan bada, berbaldi horren laburpena ekarri dogu "Txirritxola" honetara, gaiak Bakioko urigintza paisaiari, etorkizuneko herri egitureari bete-betean eragiten deustolako. Hona hemen, bada, esandakoa.



TX: Zergaitik sortu zan arau subsidiarioak birrikusteko asmoa?

JMGP: Oinarrian, urigintzako aurreko plangintzeak balio ez ebalako. Sano zahartuta egoan. Birrikustea behar-beharrezkoa zan, arauak egin ziranean, ekonomia zein gizarte arloko egoera ezbardina zalako gaurkoaren aldean. Ganera, plangintza estrategikoa bideratu behar zan.

TX: Babes ofizialeko zenbat etxebizitza eregiko dira? Non kokatu eta zein epetan amaituko dira?

JMGP: Guztira, babes ofizialeko 98 etxebizitza aurreikusita daukaguz. Errenteria, Solozarre eta Eleizaldeko guneetan egingo litzakez. Hemendik urtebete edo urte bira ekingo litzakio eregiteari Solozarreko gunean. Handik aurrera, lehenengoak 8 hilabete edo urtebeteko epean amaituko litzakez.

TX: Zeintzuk ezaugarri eukiko dabez etxebizitza horreek?

JMGP: Neurriak familia programaren arabekoak izango dira. Gehienez be, 90 m² erabilgarrikoak izango dira. Orokorrean, etxe kolektiboak izango dira, baina alkarrerik

deustolako etxebizitzak egiteko aukerea egin leiteke.

TX: Salneurria zehaztu leiteke?

JMGP: Apur gorabehera 150.000 pezeta m² bakotxeko. Hau da, 90 m²ko etxebizitzaek 14 milioi balio izango leuke eta 60 m²koak 9 milioi, apur gorabehera. Hori bai, dana aldatuko da modulu eta eregiteko sasoiaren arabera.

TX: Etxebizitzen eskaintza pribatuari jagokonez, zenbat etxebizitza eregiko dira? Non kokatu eta zein epetan amaituko dira?

JMGP: Guztira 774 izango litzakez eta horretarik 500 edo 600 egingo litzakez 8 urteko epean, horixe da eta arau subsidiarioen indarraldia. Holan, biztanleen kopurua 2.000 lagun inguruan handitu leiteke.

Era berean, neurri txikiko jarduketak daukaguz herriko uri orube guztian barrena. Dana dala, jarduketarik garrantzizkoenak Areaga, Errenteria eta Oia inguruetan izango dira, azken hau epe luzeago baten egiteko bada be.

TX: Zelango ezaugarriak eukiko dabez etxebizitza horreek?

JMGP: Ehuneko 60 inguru dentsitate txikiko etxebizitzak izango litzakez: bizitza batekoak, bizitza bikoak edo alkarrerik deustolakoak. Dentsitate txikiko etxebizitzak uri ingurunean integratzeko aukera gitxiago emoten dau. Dana dala, horrek lagunduko dau Bakiora biztanleak modu iraunkorrean bertoratzen. Edozelan be, zehaztu doguzan helburuetariko bat da lehenengo egoitzako etxebizitzak izatea, hau da, kalitatezkoak eta urte osoan bizi izateko erakoak.

TX: Bakeako eremuari jagokonez, zelan eratuko da gune hori?

JMGP: Erreka Nagusiari lotutako bedargune zabala euki beharko leuke. Holan, errekearen ondoko ibiltokia, bidegorria eta inguruan astialdiko jardueraren bat ahalbideratuko dauan urtoki txiki bat egin leitekez.

Bakea (Solozarregaz batera) Bakioko astialdirako bedargunerik

handiena izango litzake, beti be, errekeari lotua. Halan da ze, haretzearen astialdirako alternatibatzat hartu leiteke.

TX: Golf zelaia egin ezkerro, zeintzuk alde on ekarriko deutsez bakiotarrei?

JMGP: Lehenengoz, bakiotarrei ondo etorriko jake urigintzako kalitatearen ikuspuntuaren aldetik. Bigarrenez, Bakiok kanpoan eukiko dauan balorazinoa handiagoa izango da. Eta, azkenik, golf zelai publikoa izango dan lez, oraintsu arte egon ez dan astialdiko eskaintzeagaz gozatzeko aukerea emongo deutse.

Beste alde batetik, zelaia egiteak balio handiago emongo deutso udalerrri guztiari eta, batez be, inguru horretako etxebizitzetzi. Ganera, tarteko epean bestelango eraginak sortuko dauz, hau da, zelaiaren inguruan eratuko diran eraikuntza eta zerbitzuen jarduera ekonomikoa, lanpostuak eta ingurumen kalitate handiagoa sortzea ekarriko dabe. Hori guztiori, daborduko, itsas ibiltokiko jarduketeagaz jazo da. Izan be, etxe komunitateek pentsatu dabe egoera barriaren arabera jokatu eta fatxadak barritu behar dirala. Azkenean, inork ez dau atzean lotu gura eta herria osotasunean hobatuko da.

TX: Non kokatuko da industria gunea?

JMGP: Artza aldean. Eremu bi daukaguz: bata, 28.000 m²koa, gasolindegia hartzen dauana; eta bestea, 26.000 m²koa, gasolindegitik aurrera Mungiarako norabidean.

TX: Zein industria mota sortuko da eremu horretan?

JMGP: Kutsagarriak ez diran industriak, aukeren txorta zabala izanda, arautegian ezarrita dago-eta, ezartzeko diran jarduerak ez dabela ingurumenaren aldetiko kalterik sortu behar, eta berori lehentasunezko helburua izango da. Ganera, herriko jarduera ekonomikoa dibertsifikatu ahal izango da.

Itxaso Urazurrutia

HARETZAN IBILTEKO AHOLKUAK

Udea, aro hobea dala-eta, hartzara sarritan joateko sasoa izaten dogu. Hartzara joan, baina han kontuan euki behar doguzanak ahaztu egiten jakuz batzuetan. Horren ondorenez, ikaraldiak, larriuneak, ezbeharrak, zauriak-eta jazoten dira gura baino sarriagotan. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak urtean-urtean hainbat aholku emoten deuskuz holangorik jazo ez dakigun. Ea aurton jaramon egiten deutsegun!



- Sorosleen aholkuei entzun eta euren aginduak bete.
- Ikurrin gorria dagoanean, ez sartu uretara.
- Ikurrin beilegiagaz, kontuz ibili eta zuhur egon.
- Uger egin ostean dutxatu.
- Ez lohitu hartzera, ez eta itsasoa be.
- Marmokak agertuten diranean, kontuz ibili uretan.
- Jagon azala eguzkitik.
- Zauriak osatu eta jagon.
- Uretara sartuteko neurriak hartu: astiro sartu, jan osteko aldia bete, ...
- Ez eroan hartzara eguzkiak hondatu leiken jakirik.
- Hatxetan ibilteko oinetako egokiak erabili.
- Kontuz eguzkisartuagaz: burukoa jantzi, ura edan.
- Toailea norberak bakarrik erabili.
- Besteenganako begirunea erakutsi hartzan.
- Ez egon luzaroan hartzan, gehienez ordu pare baten edo.

Berbalapikoa

aholku= burubide, gomendio.
ezbehar= istripu, zoritxar.
sorosle= uretan eta hartzan laguntzaile dabilena.
marmoka= hazkura handia eragiten dauan itsas piztia.
jaki= jateko, janari.
eguzkisartu= berosartu, intsolazino.
toailla= oihal, xukadera.
begirune= lotsa, adeitasun, errespetu.

ITXAS ALDE


Dantza Taldea Nimesen



dantza egin arren, turismo apur bat egiteko astia be izan genduan. Halan bada, Nimeseko erromatar koliseoa eta «Maison Carrée», erromatar tenplua, bisitatzeko aukerea euki genduan. «Le Pont du Gard»-en be egon ginan, han dagoan ubide (akueduktu) ederra ezagutzen. Ikusten dan lez, ondo aprobetxatu genduzan hiru egun horeek, bai dantzarako eta baita astialdirako be. Dantzaldiei jagokenez esan behar dogu, gure dantzak asko gustatu jakezala esan euskuela eratzailleek eta ikuslegoa be nahiko pozik ikusi genduala. Halan da ze, indartuta etorri gintzazan hurrengo dagonilaren 5ean Bulgariara joateko, gure herriaren izena mundu zabalean ahal danik eta ondoen eroaten ahaleginduteko.

Unai BEITIA

Joan dan garagarriaren 7an urten genduan dantza taldeko hainbat dantzarik Bakiotik Frantziako Nimes urirantza. Bertan, ondo etorri ona egin euskuen eta esan behar dogu, gero be, ederto esan euskuela. Hiru egunean





BARRI LABURRAK



LANDARA ORIOAK ETA GAZTETASUNA

Europako lurralde gehienetan hamarkadak egin dabez diabetesaren eta nerbio sistemako gaixotasunen aurkako osagai lez azido lipoikoa erabilten. Oraintsu, oster, antioxidatzailea dana ikusi dau Texasko Dallas urian dagoan Southwestern Medical Center-en beharrean diharduan Ishwariel Jialal doktoreak. Hogeita hamaika pertsona osasuntsu azido lipoiko ugariko dieteagaz zortzi astean eukita, odola eta txizea aztertu ostean, gorputzeko proteinak gitxiago oxidatzen dirana egiaztatu dau, C bitamineagaz baino are gitxiago oxidatu be (eta badakigu C bitaminea antioxidatzaile ona dana).

Aurkikuntza honek gerontologian aplikatu leiteke, ze proteinak oxidatzea da zahartzearen eta bihotzeko gaixotasunen eragile nagusia.

Azido lipoikoa F bitaminearen eratorria da eta batez be landara orioek eukiten dabe, eguzki-lore orioak zein oliba orioak, esaterako.


HEMENDIK GITXIRA TELEFONOETAKO BIRUSAK BE EGONGO DIRA

Orain arte birus informatikoez arduratu egin gaitue, baina hemendik aurrera sakelako telefonoaren bidez be zabalduko ei dira birusak. Hori dino, behintzat,

birusetan jakituna dan David Chess IMB etxeko beharginak. Gaur egun daukaguzan sakelako telefonoak birusetatik kanpo dagoz, baina ez bihar-etzikoak.



Laster prest egongo diran sakelako telefonoak, berbarako, posta elektronikoz jasotako telefono zenbakia artezean markatzeko gauza izango dira. Baina alde onak ez eze, oztopoak be ekarriko dabez, birusek kalte egin ahal izango deutsee eta. Ganera, sakelako telefonoen arteko loturak estuak diran ezker, birusak sano bizkor zabaldu eta kalte handiak sortuko leukeez.



GAUEZ IKUSTEKO KAMAREA

Frantziako Peugeot eta Citroën automobil etxeak daukazan PSA taldeak urteak egin dauz automobil gidariez gauez hobeto ikusteko sistemak prestetan. Horreetariko baten oinarria automobiletan kamara termikoak imintea da. Orain arte, teknologia hori batez be militarrek erabili izan dabe. Kamareak izpi infragorriak jasoten dauz, 8-12 mikrometroko uhin luzeran. Jasotako seinalea laster baten seinale elektriko bihurtzen da eta pantailan zuri-baltzean azaltzen da. Oinezkoak, piztiak edo ibilgailu "beroen" irudiak agertzen dira pantaila horretan.

Kamarearen helmena automobileko argiena baino handiagoa da eta, ganera, kamareak oso bereizmen ona dauka. Jaramonik ez deutse egiten, esaterako, argi ikusgaiari, faroei edo lanparei.

BITXIKERIAK



PARLAMENTARIO OKUPAK MOSKUN

Errusian arazo larria eukiten dabe hauteskondeak izaten diran guztietan: kargua galtzen daben parlamentarioiek ez dabe euren etxe ofiziala itzi gura izaten. Halan jazo da oraingoan be. Dumako ordezkariak aukeratzeko hautaketea igazko abenduan egin eben, baina parlamentario asko etxe barik dago oraindino. Kontua da Moskun etxebizitzak itzelean karutu dirala azken aldion. Hori dala eta, parlamentarioek ez deutsoe uko egin gura karguagaz batera eskuratu eben bizilekuari. Gaur egun, 200 bat parlamentario okupa dagoz Moskun. Ondorez, igazko abenduan aukeratu ebezan parlamentarioetarik 80 inguru hoteletan dagoz oraindino, okupak noz botako begira. Stalinek burua jasoko baleu....

MAROKOK GALAZON DAUZ ISLAMISTEN HARETZAK


Marokoko Gobernua arduratuta dago islamistek gero eta jarraitzaile gehiago daukezelako. Hori dala eta, galazon dauz Justizia eta Espiritueltasuna Alderdia deritxonak eratzen izan dauz islamistentzako udaleku eta haretzak. Alderdi horrek udako kanpaldiak eratzen izan dauz aurreko urteotan Agadir, Bunaim, Yadida eta Nador-eko haretzetan. Islamisten haretzetan

emakumezko eta gizonezkoak bakotxa beraren alderdian bananduta egoten dira, eta emakumezkoek bainatzeko be ez dabe jantziak erantzten. Oporrak, ganera, erlijino ekitaldi ugari egiteko be erabilten dabez, eguneroko otoitzak ahaztu barik. Islamisten haretzek itzelezko arrakastea euki dabe, herri xeheari



oporraldi merkeak eskaintzen izan deutsoez eta. Haretzak publikoak diralako, horregaitik hatan be, erabilkera pribaturik ezin dabela euki arrazoitu dau Rabateko Gobernuak galazoa justifikatzeko. Islamistek, ostera, erabagiaren atzean arrazoi politikoak dagozala salatu dabe.

LONDRESEK MEZU ELEKTRONIKO GUZTIAK KONTROLATU GURA DAUZ



Britainia Handiko Gobernuak Internet bidezko komunikazio guztiak kontrolatu ahal izango dauz gitxi barru. Horretarako, 7.000 milioi pezeta inguruko inbertsinoa egin (280 milioi libera) eta zentro espezializatu bat eregiko dau.

Zentro horretatik Britainia Handiko ordenagailuetan gordetako mezu elektroniko guztiak kontrolatuko dabez, baita norbera-norberarenak be. Herritarrek, bada, ez dabe ezelango intimitaterik eukiko Internet bidezko hartuemonetan. Londresko agintariak legehaustearen aurkako burruka aitatu dabe justifikazio lez. Gobernuak dinoanez, lege-hausleek posta elektronikoa erabilten dabe alkarren artean komuniketako, eta poliziak zelan edo halan euki behar dau sare horretan sartzeko era.

BAKIOKO EUSKEREAX

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Ahor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

■ zelan idatzi behar dan: «gauzeztana»

■ Bakion zelan esaten dan: «(geusestana)»

Berbalapikoa

«Berbalapiko» berbea, hau da, berbadun lapikoa, esaten izan deusogu **TXIRRITXOLA**n hiztegi antzera atondutako berba mardoari. Oraingo honetan bada, geure-geurea dan berbalapiko berezkoa ekarri gura deusuegu orriotara. Badira Bakioko euskeran egunean-egunean erabilten diran berba asko, zer edo hagaitik, apur bat ahaztuta edo baztertuta lotu diranak. Berbok euskera osoarenak dira izan. Eta euskerearenak diran ezker, bertokoak izanda, ganera, egunero edonoganako hartuemonetan erabilkeran, euskereari berari mesede handia egingo deusogu. Ikasi eta zabaldu!

OHARRA: Berbea, izena edo izenlaguna izanda, zelan idatzi behar danekoan, artikulu barik agertuko dogu: «**luki**». Berbori Bakion zelan esaten danekoan, barriz, artikuluagaz agertuko da, fonetismoari eusteko, hatan be: «(lukidxe)».

albo (*alboa*)= alde, ondo, aldamen.

alboan (*alboan*)= aldean, ondoan, aldamenean.

arainegun (*arañegun*)= herenegun.

arean (*arien*)= 1. zeozer, apur bat; 2. izan be, egiatan.

armin (*armiñe*)= sargoritsu, egosi.

artez (*artes*)= zuzen, zuzenki.

artez (*artesa*)= jator, zintzo, berbako.

asago (*asau*)= urrun, urrin.

aurbehera (*eurberie*)= beherantzako aldatsa.

aurbeheran (*eurberan*)= aldatsean behera.

aurgora (*eurgorie*)= gorantzako aldatsa.

aurgoran (*eurgoran*)= aldatsean gora.

aurki (*eurki*)= antza, ei.

begiganeko (*begiganekoa*)= 1. logurea; 2. lotalditxua.

behar dan beste (*bidanbeste*)= nahiko, aski.

beharbada (*bierbada*)= hurrean, agian.

behardanmoduko (*bidanmodukoa*)= ganorazko, on, artez.

bebingoan (*beingoan*)= berehalan, bat-batean.

behinola (baten) (*beñola (beten)*)= 1. behin baten; 2. aspaldian.

beilegi (*bellegidxe*)= hori (margoa).

bestela (*bestala*)= itzelean.

biago (*bidxaoa*)= bazkaldu osteko lotaldia.

burre (*burrie*)= bihurgune, errebuelta.


daborduko (*daburduko*)= dagoeneko, honezkero, jadanik.

era batera (*erabatera*)= era berean, aldi beratan.


eraso (*erason*)= berba egin eragin.

erreskan (*erreskan*)= errenkadan, erreskadan.

ez(a) (*esa*)= falta, gabezia.



ezpabere (*espabere*)= osterantzean, bestelan.
ezustean (*esustien*)= ezustez, ustekabean.
gauzeztan (*geusestana*)= ezgauza, alperreko, ezgai.
gesu baten (*gesu beten*)= arin baten, laster baten.
gura ez dala (*gurestala*)= gura barik.
gurata (*gureta*)= beren beregi, berariaz, apropos.
halan da ze (*alandase*)= bada, horraitino, beraz.
haretza (*aritzie*)= hondartza.
harrezkero (*arreskero*)= ordutik aurrera, geroztik.
hausi (*eusi*)= apurtu, birrindu.
hats (*atza*)= sunda, usain txarra.
igazlehenean (*igelenien*)= orain dala urte bi.
ines egin (*iñes ein*)= alde egin, ospa egin.
inetazi (*iñetasidxe*)= babazuza, txingor.
justuri (*dxusturidxe*)= oinaztu, tximista.
lantzean (neska) bat (*lantziemet*)= (neska) bat edo beste.
lantzean behin (*lantziemein*)= noz edo noz, nozean behin.
lantzean behinean (*lantziemeñien*)= noz edo noz, nozean behin.
mardo (*mardoa*)= txorta, pilo, moltso.
moltso (*moltzoa*)= pilo, mardo, meta.
nozrik behinean (*nosipeñien*)= noz edo noz, nozean behin.
ohi dan lez (*oidales*)= itzelean, ezin hobeto.
oinatz (*oñetza*)= lorratz, aztarna.
oinaztu (*oñestue*)= tximista, oinaztargi.
oraindino (*ondiño*)= oraindinokarren, oraindik.
oraindinokarren (*ondiñokarren*)= oraindino, oraindik.
ostera (*ostera*)= barriz, ordea, aldiz.
osterantzean (*ostantzien*)= bestelan, ezpabere.
oztaz-oztaz (*ostas-ostas*)= nekez, doi-doi.
sailean (*sallien*)= ugari, eurrez, parra-parra.
sailean-sailean (*sallien-sallien*)= erreskan, erreskadan.
sano (*sano*)= 1. guztiz, oso; 2. nahiko.
sasoe (*sasoi*)= garai, aldikada, une.
sunda (*sundie*)= hats, usain txarra.
uriol (*uridxola*)= uholde.
zehatz (*sietza*)= 1. fin, zorrotz; 2. behargin; 3. zintzo, arduratsu.
zenbatgura (*semekure*)= 1. hainbat, asko, ugari; 2. gura dan beste.
zital (*sitxela*)= zirikatzaile, kinatzaile.



MENDITZAR ETA MENDITXU (alegia)

- Kendu zaitez nire albotik, txikerragotu egiten nozu eta -esan eutson hasarratuta Menditzarrak Menditxuari.
- Kendu zaitez zeu nire albotik, handiagotu naiten -erantzun eutson hasarratuta Menditxuk Menditzarrari.

Ez bata ez besteak, ez eben zirkinik egin.

Mikel ZARATE

Berbalapikoa.
zirkin egin= mobidu.

Iniaki MARTIARTU



JATABIKE

TXIRRINDULARITZA TALDEA

Hurrengo lerrootan, "Jatabike", sortu barria dan Bakioko mendiko txirrindularitza zaleen alkarteko kideetariko bateri egin deusogun alkarrizketea daukazue irakurgai. Kide hori Unai Madariaga da, izan be. Ahamen dagoz bada berak guri esandakoak.



TX: Noztik eta nortzuk zabilze behar honen inguruan?

UM: Bada, holango gauzak gureztala hasten dira formea hartuten eta hau be holantxe hasi zan. Ander Abio, David Ugalde, Mikel Zabala eta laurok hasi ginan kontu hau benetan planteatu guran eta Jokin Arroyok be asko lagundu deusku Turismo Bulegotik. Orain urte bete inguru hasi ginan beharrean, estatutuak prestatu eta paperak eroaten.

TX: Jaso dozue laguntzarik?

UM: Bai. Laguntzarik badaukagu, bai Turismo Bulegoak, bai Bakioko Udalak eta baita Euskaltelekoek be lagunduten deuskue.

TX: Badago zaletasunik herrian?

UM: Bai. Errepideetan baino, hainbat gehiago txirrindulari dabil Bakioko mendietan. Jendeak mendi bizikletarako zaletasun handi goa dauka eta ganera, gure herriaren inguruan leku ezin hobeak dagoz kirol hori praktiketako.

TX: Ekitaldiak eratuten hasi zaree. Zeintzuk dira aitagarrienak?

UM: Euskadiko Opena Bakion egin da eta seguru antzean atzera egingo da bertan hurrengo urteetan. Hori da bat, eta bestea Bakioko urteroko martxea. Horrezaz ganera, herriko jaietan lasterketa bat egiteko ibilbidea prestatan gabilz eta, beharbada, aupadearen bat be eratu geinke, txirrindulari bat asto baten aurka edo. Baina, ikusi egingo dogu.

TX: Zeintzuk dozuez aurrerantzarako asmorik garrantzitsuenak?

UM: Une honetan babesleren baten atzetik gabilz, batez be taldearen tresneria lortuteko. Beste asmo garrantzitsu bat bazkideak lortutea izango litzake, ea herriko mountain-bike zaleak guregaine hurreratuten hasten diran. Horretarako nahikoa da Turismo Bulegora joatea eta han esango deutsee zer egin.

Aurrerantzean, kanpora urteteko asmoa be badaukagu, hau da, Asturias edo Pirinioetara, baina horretarako beharra eta denporea behar izango dogu. Holan bada, herriko txirrindularitza zaleei animetako esango neuskie, eta datozela guregaine

Unai BEITIA

ITXAS-ALDE ren

BARRIAK

Garagarrilan Frantziako Nimesen dantzan egin ostean, dagonilaren 5etik 11ra bitartean Bulgariako Varna uri handira joan dira, bertako Nazinoarteko Folklore Jaialdian esku hartuteko. Beste alde batetik, dagonilaren 15eko urteroko dantzaldi nagusia prestatan dabilz. Aurton makila eta uztaien ganeko dantzak izango dira nagusi. Oñati eta Lesakako dantzak egingo dabez lehenengoz. Baita musika tresna barriak be erabili: bibolina eta violoncelloa. Gero, oporrak, iraila amaitu arte, artean agertuko diran ezkontzak eta dantzaldiak kenduta, jakina.

ALAITASUNA

PELOTA TALDEA

Mugaz beste aldera...? Bagilaren 3an, Alaitasunako kideak erramintak hartu eta Iparraldekoa dan Baiona ondoko Mugerre (bertakoentzako Elizaberri) herrira abiatu ziran, «Alaitasuna» eguna ospatzera. Egun hori gitxitxuago ezagutzen dabezan frontoi berezi bitan igaro eben, trinkete eta horma bakarrekoan. Goizeko ekitaldiak egin ostean, Alaitasunako sukaldariak egindako bazkariari ekin eutsoen gero. Zaleen artean hartuemonak sakonduz, trinkete hareri buruz berba egiten egozala, heldu jaken etxeratzeko ordua. Une haretan sortu zan unerik harrigarriena. Trinketearen erabilerea ordaintzerakoan, jaubeaguz euskeraz egin behar izan eben alkar ulertzeko. Espainiera eta frantsesaren aurrean euskerea nagusi.

ABESBATZAREN

ALBISTEAK


«BAKIORI ERESERKIA» dalakoa bagiletik entsaietan dabil abesbatza, jo ta ke, datorren urtean herriaren aurrean lehenengoz abestuteko. Berbak Zeberioiko semea eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia arloko irakaslea dan Juan Manuel Etxebarriak egin dauz. Musikea, barriz, Goikoleako Aita Paskual Barturennek. Abesbatzak dagonilean oporrak hartu dauz, irailaren hasieran barriro ekinean hasteko, udagoien eta neguari begira, hatan be.

BAKIOKO SURF

TALDEAREN BARRIAK

Udea bertan dogu eta BSTk ekitaldi piloa eratu dau sasoi honeri behar dan bestekoa atarateko. Ahor dozue zerrendea:
- Herriko OPENa: BST bakio 2000. Sub-16, neskak, Body Board eta Long Board kategorietan, garagarrilaren 15etik 16ra bitartean.
- Garagarrilaren 28tik 30era Portugaleko Santa Cruz urian klubean arteko txapelketea egin da eta han izan dira BSTko surflariak Bakioaren izenean.
- Irailaren 9tik 10era bitartean Udako Herriko Bigarren Txapelketa Idigia izango da. Txapelketa biotatik datorren urterako ranking-a egingo da.
Ekitaldi horreetaz gan, aurten be surf ikastaroa dogu haretzan, garagarrilaren 3tik dagonilaren 25era arte. Izena emoteko Turismo Bulegora jo behar dozue. Gogoratu behar da BSTko kamisetak Turismo Bulegoan dagozana merke-merke erosgai. Eta azkenik, BSTren web orria: www.bakio.com, bertan dozue BSTren txokoa informazio eta argazkiz beteta.

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



ERLOJU MEKANIKOA, Philip Pullman: Erloju bateri giltza emonkeran, badago zeozer apur bat bildurgarria beraren erritmoa aurrera doan era zorrotzean. Istorioa aurkeztuteko oso era bitxia. Jazokerak agertu ahalean, agertu egingo dira edesleak guri irakurleoi zuzendutako lorratz bereziak.



LAMIA, Josu Lartategi: Hegan bildumako liburutxu honek Euskaltegiko 2. mailan irakurteko da. Laminak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamina gazte baten ibilaldiaren barri eukiko dogu.



KRABELINEN HERRIMINHA, alkarlanean: 1974ko apirilaren 25ean, hainbat irratik Grandola Vila Morena abesti ezaguna aireratu ostean, azkena emon eutsoen portugesez Salazar

diktadorearen bildurraldi luzeari. Hego Euskal Herrian ez genduan grandolarik euki. Gure amorruren zurrumurrua sehaska abesti bihurtu ekion Francori, ez genduan besterik egiten jakin. Orduan ikasi genduan Portugaleri beste begiz begiratuten. Orduan jaio ekigun amesak orrialde ederrak idatzi dauz gure literaturaren liburuan.

LIBURUTEGIAREN BARRIAK

Nagusientzako udako azken barrikuntzak erosiko doguz. Uda honetan be, irakurketea bizkortuteko jarduerak egongo dira Bakioko Kultur Etxeko Udal Liburutegian.

1) Irakurketa lehiaketea: Liburu bat irakurri ezker, fitxa txiki bat bete behar izango da. Fitxa hori zozketa baten sartuko da. Gehien irakurriko dauanak lehenengo saria irabaziko dau: Skate (edo antzeko saria) eta Harry Potter liburu bat. Horrezaz ganera, billabong motxialak eta holako gehigarriak be egongo dira zozketan. Eskuhartzaile guzti-guztiek liburu bana eukiko dabe saritzat.

2) Sorginkerien liburutxua: Eskuko liburu honetan sorginen eta sorginkeria ganeko liburutegiko ale guztien zerrrendea agertuten da. Liburu horreen fitxeak irakurketa lehiaketako zozketan fitxa biren balioa hartuko dau.

3) Ipuin kontalariak: Garagarriaren 20an eta 27an HIRUKI TALDEKOEK umeentzako ipuin saio bereziak egin ebezan.

4) Irakur puntuak: Garagarriaren bigarren hamabostaldian irakurpuntu «pertsonalizatu» diralakoak egiteko aukerea euki dogu liburutegian. Irakurleei liburutegiko plantila bana emon jake eta hor liburutegiko liburuen pertsonaiarik begikoenak margoztu dabez. Izenpetzea imini eta gero, barrero Kultur Etxera eron beharizan da plastifikatuteko, eta horra hor irakur puntu «exklusiboa».

**Liburu eta aldizkari honeek
Kultur Etxeko
liburutegian irakurgai daukazuz.
Erdu gurera!**

ONDO EGINAREN PAGUA

**(Hamaika abere-ipuin.
Bizkaiko herri-alegiak.
EGOKITUTA)**

Behin baten, Jatabeko gizon bat basora joan zan, eta basoan zehar tipi-tapa joiala, blaust!, Lukiaren zulora jausi zan. Lukiak, barriz, gizon ha zuloan ikusita, errukia hartu eutson, han txarto be txarto egoan-ta, eta atara egin eban zulutik. Gizonak bere burua aske ikusi ebanean, esan eutson Lukiari:

-Lagundu eistazu etxera, lagundu eistazu etxera!

Eta Lukiak erantzun euston:

-Ez, ze bildur naz, zuk ez deustazu ondo esango eta.

-Bai, bai, zeugatik bizi naz eta. Erdu gurera, ze zu gose izango zara eta neuk emongo deustut jaten.

Joan ziran, bada, gizonaren etxera, baina gizon harek txakurrak eukazan, txakur haundi-haundi bi. Eta etxe ondora heldu ziranean, honan esan eutsen txakurrei gizonak:

-Otsa, otsa horrerri!

Eta jakina! Luki koitaduak arrapalada hotsean egin behar izan eban ines, txakurrek haginka egin gura izan eutsoen eta. Lukiak, orduan, bere kolkorako honan esan eban.

-Ondo eginaren pagua, ate ondoan palua emon deustazu gizon zital horrek.

Hori holan bazan,

ez bazan,

ez neuri esan.

Iniaki MARTIARTU

Berbalapikoa

alegia= abere eta gauzen ipuinak, fabula.

tipi-tapa= bizkor eta lotu barik ibiltea. (Bakioko berbea)

blaust!= jausikeran entzuten dan zaratea. (Bakioko berbea)

errukia hartu= -z errukitu.

aske= jarein, libre.

ondo esan= nonor ondo hartu. (Bakioko esakerea)

otsa!= txakurrek erasoteko esaten jaken berbea. (Bakioko berbea)

arrapalada hotsean= abiada hotsean, arin baten.

ines egin= iges egin, hanka egin. (Bakioko berbea)

bere kolkorako= bere barrurako, bere artean.

zital= zirikatzaile, oker. (Bakioko berbea).

MUSIKEAREN TXOKOA

«TEXAS TERRI»

Agur lagunok!

Musikearen txoko honetan «Texas Terri» gure lurretara etorri zaneko kontakizunagaz natortzue. Bagilaren 16an, Texas Terri Laird, agotsa eta taldeko buruzagia, «Stiff Ones» dauan ohiko taldeagaz agertokiratu zan. Beraren «Eat shit» (jan eizu kaka) deritxon azken diskoa aurkezteko asmotan, eta baita ederto aurkeztu be.

Emakume honek berezkoa dauan indarra ixuriten dau. Agerraldietan arimea zein gorputza guztiz biluzten dauz, azken hau guztiz tatuatuta daukala. Beraren presentzia eta oholtza ganeko mugimenduak Iggy Pop handiaren parean jarten dabe, bihotz guztia agertoki ganean izten dauala. Egiten dauan musikea eskola zaharreko punk on-ona da, «Dead Boys» edo «Sex Pistols» lako talde handiek jorratzen eben lako.

Gau ederra eskaini euskun, punk itxura ederragaz geugaz dantzatzu. Izan be, zeozergaitik da New York-eko punkaren erregina.

ETOR DUOANDIKOETXEA

OLERKIAK (Bitoriano GANDIAGA)

ZURE IRUDIA

Zure irudia arantzan.
Arantza gure bizitzan.

Geure irudi bat ikusi dogu irudi samin horretan.

HARRIZKOA ZARA

Harrizkoa zara. Irribarrezko harri triste ta hotzekoa. Elorrian zagoz. Irribarrezko triste irribarrezkoa.

BIZITZA SASI BAT DA

Bizitza sasi bat da larrosa ta arantza. Nonork arantzatik oratuten deutso. Nik neuk ez arantzatik, min emoten deust eta; loratik oratzea, hobeto derist.

FILMA

FILMA

KM. O: Euren artean oso ez-bardin diran pertsonen bizitza azalduko deusku filmak. Madrileko Puerta del Sol dalakoaren 0 kilometroan (Espainiako estatuaren errepideen hasikerako puntua) begiz begi ezagutuko dabe alkar pertsonok. Ideia oso ona izan arren, hasikerako indarra galdu egiten da geroago. Pertsonen hartu-emonek aurrera egiten dabe, oso era sinisgatxean. Izan be, Madrilen eginda badago be, Hollywood-eko eragin handia nabarmenduten da filmean zehar zein amaieran.

Iratxe ORMAZA

BARREGAIK

EHIZTARIAK

- Ba ete dakizu ehiztariak zergaitik ixten daben begi bat aparau egiterakoan?
- Ez dakit.
- Bada, biak itxiko balebez, ez leukeelako ezer ikusiko.

AMANTALA

- Andra bat dendara sartu eta dendariari honan dinotso:
- Atzo hemen erosi neban amantala ordeztu gura dot.
 - Zelan, baina...? Amantal hori ondo be ondo joitzun eta...
 - Bai, baina nire gizonari estutxu jatorko.

AUTORPENA

- Beti mozkor ibiltan zan lagun batek:
- Nik egunean birritan bakarrik edaten dot.
 - Birritan bakarrik dinostazu...?
 - Bai, otorduetan eta otorduetatik kanpo be.

Berbalapikoa

ehiztari= ehizan egiten dauana.
aparau egin= bete-betean jo, ituan jo.
ordeztu= trukatu, aldatu.
otordu= jatordu, bazkalordu.

datozanak

Udea ekitaldiz beterik dogu Euskal Herrian zehar. Ez da, bada, haren atzean lotuten udagoiena. Begitu, osterantzean, hurrengo zerrendeari.

a
b
u
z
t
u
a
n

- Portua Musikea Jaialdia**, abuztuaren 2tik 3ra, Lekeition.
- Bertso Afaria**, abuztuaren 3an, Bakion.
- Andra Mari Zuriaren Jaiak**, abuztuaren 4tik 9ra, Gasteizen.
- Baionako Jaiak**, abuztuaren 2tik 6ra, Baionan.
- Donostiako Aste Nagusia**, abuztuaren 5etik 13ra, Donostian.
- Pastorala**, abuztuaren 6an, Eskiulan.
- Organo Jaialdia**, abuztuaren 8tik 12ra, Araban zehar.
- Umore Antzerki Jaialdia**, abuztuaren 12tik 15era, Araian.
- Andra Mari Eguna**, abuztuaren 15ean, Bakion.
- Musika Hamabostaldia**, abuztuaren 11tik irailaren 3ra, Donostian.
- Bilboko Aste Nagusia**, abuztuaren 19tik 27ra, Bilbon.
- Nekazaritza Azokea**, abuztuaren 27an, Bakion.
- San Jon Dolozak**, abuztuaren 28tik 31ra, Bakion.

i
r
a
i
l
e
a
n

- Nazinoarteko Abesbatzen Astea**, irailaren 1etik 8ra, Araban zehar.
- Maitaldia**, irailaren 1etik 17ra, Miarritzen.
- Euskal Jaia**, irailaren 2tik 4ra, Donostian.
- Film Laburren Zinemaldia**, irailaren 4tik 16ra, Beran.
- Getxoko Folk Jaialdia**, irailaren 6tik 10era, Getxon.
- Olarizuko Erromeria**, irailaren 8an, Gasteizen.
- Zarautzko Euskal Jaia**, irailaren 9an, Zarautzen.
- Nazinoarteko Zinemaldia**, irailaren 21etik 30era, Donostian.
- Rockazokea**, irailaren 29tik 30era, Bilbon.
- San Migel Jaia**, irailaren 29an, Zumetzagan.
- Erromeria Eguna**, irailaren 30ean, Oreretan.

u
r
r
i
a
n

- Jaüzien Eguna**, urriaren 1ean, Barkoxen.
- Kilometroak**, urriaren 1ean, Azpeitian.
- Lapurtarren Biltzarra**, urriaren 1ean, Ustaritzen.
- Mutxikoaren Eguna**, urriaren 8an, Arrangoitzen.
- Mixel Labegerieri Omenaldia**, urriaren 14tik 15era, Kanbon.
- Nafarroa Oinez**, urriaren 22an, Iruñean.
- Gernikako Urriko Astelehenak**, urriaren zehar, Gernikan.

badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
 Udaletxea _____	94 618 40 01	94 618 31 18
 Turismo Bulegoa _____	94 619 33 95 / 5702	94 619 31 61
 Kultur Etxea _____	94 619 33 69	94 619 31 18
 Osakidetza (osagilea) _____	94 619 42 07 / 4026	_____
 Udaltzaingoa _____	656 788 623	94 619 31 18
 Larraldietarako zerbitzuak (SOS Deiak) _____	112	_____
 Taxia _____	609 443 933	_____
 Abadea (beheko eleizea) _____	94 619 43 15	_____
 Botikea _____	94 619 44 72	_____
 Autobusa (Bizkaibus) _____	94 454 11 35/05 44	_____
 Suamatzatzaileak _____	94 492 28 00	_____

DANETARIKOAK



abuztua 2000

TX-32

41

ezetz jakin!

Nondik nora joan behar dot?



KOMIKI HAU
NAHASTUTA DAGO.
ZEIN IZANGO LITZAKE
IRUDIEN ERRESKADA
EGOKIA?

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

Neumatikoak

Gas-tutuluak

Orioa aldatzea

Balazta zapatak

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8
Tfnoa.: 94 619 48 97
48130 BAKIO



GOTZON

Jatetxea

Benta Alde, 135
Tfnoak.: 94 619 40 43
94 619 43 30
48130 BAKIO

Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 47 86
48130 BAKIO



Txomin taberna



HERRIKO KIROLAREN ALDE
Goitisolo Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70
48130 BAKIO

UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO



Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa.: 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Benta Alde, 171
Tel. eta Faxe: 94 619 40 08
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO

IRAGARKIAK
abuztua 2000

TX-32

43



atzera begira

Ahamen daukaguz! Laurok laurotara. Eta zelazekoak, gero! 1949. edo 1950. urteko jaietako Sanjolaztxu egunean, eguerdian. Egia aurrean. Argazkiko atzeko alderdian ikusi leitekez gerizpea egiteko iminten jeezan haltz-abarrak. Txokolatadea egin eta, olgeta eran edo, txokolatea alkarrerri emoten eutsoen jaten, arpegian eta buruan anarrua jantzita eukela. Ahan tabernaldeko frontoian jaietan egiten ziran txapelketa antzekoetan. Gero gerokoak, jakina!

Ezkerretatik hasita eskuatara:

Julian Ormaza (KAMIÑERUENE) - Anis Barturen (ARIETXEA) - Adolfo Elgezabal (GARAIETXE) - Migel Renteria (TORREZAR)

(Argazkia: Enrike Zabalak itzita)